

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

274/2019 Foru Dekretua, ekainaren 17koa, Diputatu Nagusiarena, efizientzia energetikoaren dirulaguntzei dagokien Donemiliagako Udalaren epea luzatzen duena

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion energia iraunkortasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroaren 2018-2019ko ekitaldirako deialdiari. Urriaren 31ko 435/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen laguntzen esleipena.

2019ko urtekoari dagozkion gastuak 2019ko uztailaren 19rako gauzatu behar dira.

Donemiliagako Udalarari 20.262,78 euroko dirulaguntza eman zitzaion, biomasa galdara bat instalatzeko (klimatizazioa eta ur bero sanitarioa) District-Heating sisteman, udal eraikinetan. Dirulaguntza bi urtekotan esleitu zen; hau da, 4.457,80 euro 2018ko urtekoan eta 15.804,97 euro 2019ko urtekoan.

Biomasa galdara instalatzeko proiektuaren gastuak 2018ko urtekoaren kontura justifikatu zituen Donemiliagako Udalak, eta gainerako gastuak (obra zibil elkartua, obra zuzendaritza, galdara instalatzea...) 2019ko urtekoaren kontura justifikatzeko utzi zituen.

2019ko apirilaren 23an, Donemiliagako Udalak idazki bat bidali zuen eskatuz luza zedila 2019ko urtekoan aurreikusitako gastuak justifikatzeko epea, arrazoi hauengatik:

- Udal korporazioa aldatu izana, eta horrek espedientea denboran luzatzea ekarri du.
- Langile baliabide propio gutxi izana, eta horrek espedientea izapidetzea oztopatu du.
- Arazoak egon dira azaroaren 8ko 9/2017 Legean eskatutako lizitazio elektronikorekin, eta horrek ekarri du berandutzea administrazio espedientea izapidetzean.

Alegatu den justifikazioa aztertuta, Donemiliagako Udalak 2019ko urtekoa justifikatzeko egin duen epea kanpoko 2019ko azaroaren 22ra arteko luzapen eskaera onartu behar da.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 19. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. 2019ko azaroaren 22ra arte luzatzea epea Donemiliagako Udalarari, diruz lagundutako jarduna gauzatzeko eta egiaztagiriak aurkezteko.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN